



**ANIMETAKO PUNTAKO BATERIA**  
**C MAILA**
**ULIA**

**Deskribapena**

Uliako bateria edo Animetako Puntako bateria 1937an eraikia da, Espainiako Gerra Zibilaren ingurunean. Donostiako itsasertza eta Pasaiako portua defendatzeko multzo gotortuari dagokio. Uliako itsasertzeko bateria artilleriaren pean egon zen 1937ko otsailaren eta 1938ko apirilaren artean. Aipatzekoa da haren izaera historikoa itsasertzaren defentsan. Bitxitasun gisa, itsaspeko alemaniarrentzat zerbitzu egin zuten kanoiak ezarri ziren bertan.

Bateriak 4 artilleria kokagune biltzen ditu, hormigoizko upel erdizirkularrez eta oinplano angeluzuzeneko eraikin batez osatuak. Eraikina lur naturaleko mendigune bati atxikita dago, eta hiru gela zituen, tiro zuzendaritzaz gainera – Animetako Puntako berezko bunkerrari dagokio–. Berori artilleria kokaguneen abangoardian kokatutako bunkerraz osatzen zen. Bunker hori hormigoizko armatuz eraikita dago, eta harkaitz naturala barne hartzen du bere egituran. Goialdean, lur eta harrizko kamuflajea du.

**Babes erregimena**

- 1.- Erregimen orokorra  
Plan Berezi honen C babes mailan integraztearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena
  - A.- Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: ez.
  - B.- Elementu edo zati iraunkorrak: kontserbatzen diren elementu guztiak.
  - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: azterketa xehatu bat egingo da, arkeologikoa, behar izanez gero, zonan edozein esku hartze mota egin aurretik; azterketa hori idazten ez den artean, bateriaren ingurunea ezingo da aldatu 30 metroko erradioan.
  - D.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez.